



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2025/12/17

OLENTZERO ETA JAIOTZEN LEHIAKETA 2025

Plaza Zaharrean, abenduaren 24ean, 11:30ean

ARAUTEGIA

- A – 10 urte arteko haurrak**
- B – 11 urtetik 15 urtetarainoko haurrak**
- C – 16 urtetik goitikoak**

Olentzeroak eta Jaiotzak 11:00etarako egon beharko dira plazan. C Kategoriako olentzeroak plazako aparkalekuan utziko dira. Euria eginez gero, udal pilotalekuan egingen da. Eguraldiarekin zalantzak izanez gero, abenduaren 23an, 13:00etan, erabaki eta jakinaraziko da non egingen den lehiaketa.

Lehiaketan aurkeztuko diren taldeak guttienez 6 pertsonaz osatuak izanen dira.

Taldekilde batek hurrengo kategoriko adina baldin badu, automatikoki hurrengoan lehiatuko da.

Olentzero talde bakoitzak 2 kanta kantatuko ditu: bata, nahitaez “*OLENTZERO BURU HAUNDIA*” izanik eta bigarrena talde bakoitzak aukeraturikoa, Lesakako ohiturazko kanten artean.

Derrigorrez Olentzeroa bizkar gainean izanik kantatu beharko da.

Epaimahaia, herriko bederatzi pertsonaz osatua egonen da. Olentzeroa edo Jaiotza, kanta eta janzkera baloratuko dituzte. Epaimahaia kioskoan egonen da eta honen espazioa errespetatu beharko da beraien eginbeharra oztopatu gabe. Kioskoan epaimahaia, antolakuntza eta udalak kontratatutako argazkilaria bakarrik egonen dira. Epaimahaia, kantua baloratuko du (10 puntu gehienez), Olentzeroa-Jaiotza (10 puntu gehienez) eta janzkera (8 puntu gehienez).

Lehiaketaren ondotik, bertan parte hartu nahi ez dutenentzat, jaialdiko atala izanen da. Atal honetan taldeek kantatu eta beraien Olentzeroa edo Jaiotza erakusteko aukera izanen dute, betiere lehiatu gabe. Atal honetan parte hartu nahi duenak, goizean, lehiaketa hasi aitzin, antolakuntzari jakinaraztea eskertuko da.

Lehiaketa 11:30etan ospatuko da plazan. Olentzero ttikiek plazara sartzeko bi gurasoren laguntza izan ahalko dute.

Parte-hartzaile guztiak bukatzean, irabazleen zerrenda jakinaraziko da eta sariak banatuko dira. Talde irabazleak berriro aterako dira plazara eta kanta bakarra kantatuko dute.

Lehiaketaren ondoren Olentzero eta Jaiotza guztiak, kaleetatik jaso beharko dira. Zaborretara botatzeko asmoa izanez gero, plazako aparkalekuan utzi ahal izango da, horretarako adierazitako lekuan, eta udala arduratuko da biltzeaz. Egokitutako eremutik kanpo hondakinak utziz gero, biltzeak suposatzen duen kostua Olentzero talde horrek ordaindu beharko du.

Ilunabarreko 18:00etan C kategorian irabazi duen Olentzeroak kalejira egingen du herriko karrketan barna Lesakako Musika Bandak lagundurik.

Lehiaketan parte hartzeko aldeztuetatik izena eman beharko da: **abenduaren 22 eta 23an 09:00-14:00** Lesakako Udaletxeko 1. solairuan. Izena ematerakoan **konpromezu orri** bat sinatu beharko da.





SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2025/12/17

SARIAK

OLENTZERO
A-10 URTE ARTE

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

B-11TIK 15 URTETARA

Lehena	120 €
2.a	110 €
3.a	100 €
4.a	90 €
5.etik aitzinera	80 €

C-16 URTETIK GOITI

Lehena	600 €
2.a	400 €
3.a	300 €
4.a	200 €
5.atik aitzinera	150 €

JAIOTZAK

10 URTE ARTE

Lehena	80 €
2.a	70 €
3.a	60 €
4.a	50 €
5.a	40 €
6.etik aitzinera	30 €

11 URTETIK GOITI

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

OHARRA: Abenduaren 24ko Olentzero eta Jaiotzen lehiaketan parte hartzen dutenen argazki artxibo historiko bat osatzeko helburuarekin, Lesakako Udalak argazkilaria ofizial bat kontratatuko du egun horretarako olentzero, jaiotza, parte-hartzaile eta abarren argazki albuma egin dezan. Argazkiak nahi duen ororentzat egonen dira eskuragarri. Hori dela eta, ezin izanen da kioskoan sartu argazkiak edo bideoak ateratzeko.

